

noaua

**Landaberri Ikastolak
50 urte bete ditu**

**Asteburu honetan,
jauzi antzerki giroan**

**Iñaki Gericak nagusitu
zen Baxurde Krossean**



Argazkia: Goiena

Igande honetan

Bizipozaren Jaia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

ARGENTINA



iparretik hegora

·AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30·



Erreserbak eta informazioa bulegoan



NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 633
info@noaobidaia.com
www.noaobidaia.com

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2
ETXEBIZITZAK!



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan



"Trailaren 10ean larunbata, 1958an jaiotako en urteroko kinto bazkaria egin genuen, 58/58, haxe gara: Usurbilgo uzta rik onena lelopean. Aurten 1958an jaiotakoak 58 urte betetzen ditugulako". Argazkian ikus daitekeenez, primeran igaro zuten eguna.

Laburrean

1955. urtean jaiotako en afaria, urriaren 15ean

Urriaren hirugarren larunbatean, urriak 15, 1955. urtean jaiotakoak batuko dira. Izena emateko bi aukera: 1955usurbil@gmail.com helbidera idatziz. Edo telefonoz: 615 760 458 (Patxi).

Urriaren 30ean, 1946an jaiotako en bazkaria Antxetan

Izena aurrez eman beharko da Laurok liburu dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48. Aurten 70 urte bete dituzte edo beteko dituzte herritarrok.

"Tomaxen abentura berriak", ostiral honetan Santuenean

Santuenea Elkarteak antolatuta, Tomaxen abentura berriak, 17:30ean auzoko frontoian. Jai ukituko haur ikuskizuna eskainiko dute, eta ondoren, txokolate gozao dastatzeko aukera egongo da.

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldia, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

Euskara, erasoen helmuga

Hauteskunde kanpainan betean gaude, berriz. Oraingo honen beste zera bat du, ordea: “gureagoa” da, eta horrek, beno, kanpaina interes gehiagorekin jarraitzera naramana. Egia esan, ez diet kasu handiegirik egiten bi asteotako alderdien adierazpenei: nire botoa aldatzeko eragin handiagoa dute legealdiek irauten duten lau urteek, bi asteotako promesek baino. Baina hauteskunde eguna iristeko irrika beste bat da, emaitzak jakitekoa.

Baina, hara, aste berean bi eraso jasan ditu euskarak, PSE eta PPren aldetik. Euskarak, eta euskaldunok. Gogoratzen dudan erasorik gogorrenetakoa iruditu zait. Zikina eta zinikoa izan behar da, gainera, euskararen defentsan ari(ko) direla esateko.

Galizian ikasi nuen urtea

ekarri didate gogora PSEk eta PPk. Han, Espainiako punta desberdinetako jendea zegoen, eta ez dut gogoan zehazki zeinek (hau da, ez dut gogoan nongoa zen) esan zidan gustura etorriko litzatekeela hura Pais Vasco-ra bizitzera eta, batez ere, lanera (EAEra? Euskal Herrira? Nafarroara?), baina klaro, hizkuntzaren kontua zegoela tartean. Gure hango “kuadrillan” asko bezala, medikuntza ikasten ari zen hura ere. Hemengo bizi kalitatea ona zela (krisia oraindik hasi besterik ez zen egin garai hartan), baina Osakidetzan lan egiteko hizkuntzarena traba bat zela. Pertsona bakarrak esan zidan hori, baina medikuntzako beste ikasleei galdetuz gero seguru nago iritzi berekoak zirela.

Eta seguru nago Londresera lanera joatea tokatu balitzaie, krisiak gogor jo dituelako bazter guztiak, eta euren bizilekuan jarduteko aukerarik ez edukita

joatera behartuta egongo balira, ez luketela pentsatu ere egingo: “Jo, eske ze muturra ingeles hauek, haien hizkuntza jakin behar da han lan egiteko”.

Azken egunotan tokatu zait anbulategian: nire medikua falta, eta ordezkioak euskaraz hitzik ez. Non eskatuko dugu euskaldunok euskaraz artatuak izateko eskubidea? Londresen? Madrilen? Kontxintxinan? Ez ba, gure etxean bertan egin beharko dugu, ba?

Ze, gauza bat argi izan behar dugu: administrazio publikoan lan egitea ez da eskubide bat. Administrazioa jo eta bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan atenditua izatekoa bai da eskubidea. Esan nahi baita, ez duela zerbitzuaren hartzaileak moldatu behar langile publikoaren (ez)ezagutzetara. Bai zik eta langile horrek gaitasuna izan behar duela bai euskaraz bai gaztelaniaz zerbitzua ema-

teko. Bietako bat ez badaki, ez da lanpostu horretako egokia. Eta kitto. Zein da inposatzen duena? Bi hizkuntza dakizkiena? Edo bakararra baino menperatzen ez duena?

Kontu honetan okerreina zera da: abertzale diren eta sozialistekin paktatzen duten horiek ustez haserretu egin direla, baina hauteskunde-etako emaitzak jakin eta hurrengo egunerako ahaztuta izango dutela. PSErentzat eta PPrentzat jolas bat baino ez da: euskaldunak amorrarazten barre batzuk egin eta kitto. Badakitelako ez dela ezer pasatuko. Ez dutela batere botorik galduko: alderantziz, izatekotan, baten bat irabazi dezaketela. Lana bilatzea hain garesti dagoen garaio-tan, euskaraz ez dakien langabetu horri ez ote zaio ba gutxienez erakargarria egingo PSE eta PPren eskaintza?

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | **Maialen Unanue** | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai

Joseba Larratxeren komikia



Berme Batzorde batek ikuskatuko du herri galdeketaren zuzentasuna

Urriaren 21, 22 eta 23an, erraustegiaren inguruan egingo den galdeketaren zuzentasuna zaintzeko eratu da Berme Batzordea. Erraustegia egitea nahi al duzu? izango da herritarrei egingo zaien galdera, agerraldian adierazi zutenez “inoiz egin ez diguten galdera, hain zuzen ere. Erraustegi hori –gaineratu zuten– guk, herritarrok, ordaindu beharko genuke gure osasunarekin eta gure diruarekin, baina inork ez digu galdetu ea erraustegia nahi dugun ala ez”.



“Gizarte anitz honen isla da osatu den Berme Batzordea. Bertan herri honetan erreferenzialtasuna duten pertsonak daude”. 12 kideetatik sei hurbildu ziren larunbateko agerraldira.

Galdeketa auzoka egingo da

- Urriak 21, ostirala: 16:00-20:00 Aginaga.
- Urriak 22, larunbata: 9:00-14:00 Santuenea.
- Urriak 22, larunbata: 16:00-20:00 Zubieta.
- Urriak 23, igandea: 9:00-20:00 Kaxkoa.
- Oharra: edozein mahaitan bozkatuko ahalko da, norbera-

ri ondoen datorkion egun eta orduan.

Herri galdeketa laguntzeko, kamisetak salgai

Erraustegia Erabakia herri plataformak deituriko herri galdeketa antolatu eta burutzeak hainbat gastu dakartza. Horiei aurre egiten laguntzeko, kamisetak saltzen aritu dira udan zehar aipatu herri

plataformakoak. Kamiseta eskuratu ez baduzue, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan salgai ditugu 6 eurotan.

Agortzen ari dira kamisetak, beraz, erraustegiaz erabakitzeko dugun eskubidearen aldarria soinean eraman nahi baduzue, bukatu baino lehen etorri. Haur nahiz helduentzako kamisetak dituzue aukeran.

Berme Batzordeko partaideak

Berme Batzordearen zeregin-galdeketa prozesu osoa ikuskatzea eta protokoloak ezartzen duena betetzen dela bermatzea izango da.

- Esther Arrojeria
- Alejandro Tapia
- Paki Iradi
- Joxe Piñas
- Bego Izeta
- Haimar Zubeldia
- Ainhoa Azpiroz
- Ramon Udabe
- Edurne Albisu
- Xabier Santxo
- Rosa Sanroman
- Joxe Luix Elexpe «Pelex»

Kontsultako galdera hau izango da

Erraustegia egitea nahi al duzu? Bai ala ez?

■ “Bai” eta “Ez” dioten bi bozka paper izango dira aukeran.

Nortzuk parte hartu ahalko duten:

■ Usurbilen eta Zubietan erroldaturiko 16 urtetik gorako herritarrek.

Ika-Mika

9.159 egun

Xabier Aranburu Muguruza, 3.560 días ilegalmente dispersado a más de 600 km de su casa con la colaboración de esta cárcel. Xomorroekin gutunak elkartrukatu dituztenentzat esaldi ezaguna da honakoa, horrela hasten baitzituen bereak oraindik indarrean dagoen sakabanaketa salatzeko. Gure herrikideak hogeita bost urte pasatxo igaro ditu kartzelan, zehazki 9.159 egun.

Horietatik ehunka batzuk edo milaka batzuk (kontaketa nola egiten den arabera),

bahituta. Bai, bahituta. Izan ere, Estatu espainiarrak bere legeria era normalean aplikatu izan balu, aginagarrak duela 10 urte jada gure artean izan behar zuen baldintzapeko askatasunaren bitartez. Bistan da ez dela hala gertatu.

Aparteko legearekin, 2015eko martxorako finkatu zioten kondenaren kitapena. Baina, 24 urte ez ziren nahiko nonbait eta beste trikimailua asmatu zuten kaiolan mantentzeko: prebentibo izandako denboraldiko erredentzioak kontuan ez hartzea, alegia. Hala, beste

bi urtez luzatu zioten zigorra, 2017ko martxora arte, hain zuzen.

Xomorrok, euskal preso politiko asko bezala, hamaika helegite jarri ditu dagozkion eskubideak exijituz; ez alferrik. Baina, tira, epaile batek azkenekoak aintzat hartu dizkio eta aplikatu ez zitzaizkion hainbat erredentzio edo kondenaren murrizketak ontzat eman ditu. Zehazki, urtebete eta 9 egun deskontatu dizkio. Azken ebazpen horrek argi utzi du, berez, joan den martxoan libre izan behar zuela. Hortaz, beste sei hilabete “musu-truk” bahi-

tuta eta, epailearen erabakia gauzatzeko tramiteetan izandako gorabehera administratiboak gehituta, beste hiru egun gehiago igaro ditu preso.

Azkenean, behingoz aske utzi dute eta herrira itzuli da. Beren senide eta lagunak ere 25 urteetako kezka eta bisi-tetako zama gainetik kendu dute. Bazen garaia! Bada garaia ere bahituta dituzten beste preso askorentzako. Bada garaia guztiak etxeratzeko. Ongi etorri Xomorro!

Usurbilen Nahi Ditugu elkarte

Auzolanean, bizipoza

Bizipozaz kutsatu eta partekatze aukera izango da iganderako iragarria dagoen jaialdian. Denontzako lekua izango du irailaren 25eko elkartasun festak. Besteren artean, hainbat herri eragileren arteko elkarlanari esker ospatuko da. Haiengana jo dugu. Etxekoengana, zer lanetan ari diren, horren berri jasotzera.

“Bizipoza elkarbanatuko dugun festa izango da. Egun koloretsua, alaitasun eta elkartasunean oinarritua. Jolasean eta dantzatzen, pozik pasatzeko egun bat.

Bizipoza elkartetik bertaratzeko gonbita luzatzen dugu”, halaxe adierazi digu Leire Elizegi Bizipoza Elkarteak kideak.

Mugimendu honek Irrien Lagunen Klubean du jatorria. Klubaren lehen eguna ere Usurbilen ospatu zen duela 5 urte. “Lau oinarri ditu egitasmoak; euskara, auzolana, elkartasuna eta bizipoza bera. Oraintxe berrantolaketa lanean gaude elkartearen proiektua denetarikoa eragileekin partekatzen ari gara, nortasun propioa



Igande honetako ospakizunak koordinatzen burubelarri dabil Leire Elizegi.

LEIRE ELIZEGI, BIZIPOZA

“Lau oinarri ditu Bizipoza egitasmoak; euskara, auzolana, elkartasuna eta bizipoza bera”

hartzeko bidean da. Aurrera begirako erronka, Bizipoza Elkarte elkarte autonomoa izatea da. Gizarteko arlo gehiagotara heldu nahiko genuke”.

30 elkarte batzen dira

Elkarte guztiok egiten duten lana ezagutarazi “eta baloreon sentsibilizazioa lantzen dugu. Bizipozaren oinarri dira elkarteak eta Bizipozaren Jaiako protagonistak. Jaialdian ere informazioa gizarteratzeko aukera dute, ekitaldietako parte aktiboa dira. 5.000-6.000 lagun biltzen ditu jaialdiak. Beti harrera oso ona izan du”, Leire Elizegik aditzera eman digunez.

Elkarteen ekimenetan ere parte hartzen dute. Honez gain, Irrien Lagunen Klubak hilero aldizkaria argitaratzen du, zabalkunde handia izaten du ere. Elkarteek bere lekua izaten dute aldizkarian. “Real Sociedad Fundazioarekin elkarlanean aritzen gara. Jokalariekin eta Irrien Lagunekin onkologikora bisitak egiten ditugu. Fundazioaren egunean ere Bizipoza Elkarteak kideetako bat protagonista izaten da”.

Ana Urdangarin eta Larraitx Izagirre: “Bolondresak behar ditugu lanerako”

Jaialdiaren izenak dioen moduan, bizitzeko poztasun hori biziko dugu igandean. Denontzako jaia izango da. 30 elkarteak ezagutzeko aukera izango da, jendeak haien informazioa jaso dezala. Jende guztia animatu nahi genuke laguntzera; Bizipozaren Jaialdirako bolondresak behar ditugu, ordu zehatzetan lan zehatzak egiteko. Ahal duenak etorri eta edozeretan parte hartzeko aukera izango du. Bolondresak ondo eta maitasun handiz zainduak



Bizipoza Elkartearentzat arituko dira lanean Ana eta Larraitx.

egongo dira. Gu ere bertan izango gara. Herri honetako bizipozaren parte izan eta herriko jendea ezagutzen dugunez, antolaketa lanetarako talde desberdinekin harremanetan izan gara.

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak: “Ardurarako urrats bat eman dezagun”

Eredu berri posible bat bistan jarri nahi genuke, jendea halako jaialdietan zenbat hondakin sortu eta zenbat murriztu dezakegun kontzientziatu. Ondo seinaleztatuko ditugu hondakinen bilketa eta iturriko ura edateko guneak. Iturriko ura zerbitzatuko da herri bazkarian. Txokolatea dastatzeko edalontzia hartu eta itzultzea sustatuko da. Ardurarako urrats bat eman dezagun, guztiona da erantzukizuna. Honek guztiak jendearen laguntza



Karmele Zubeldia.

eskatzeko. Bizipoza eta koloreen atzean grisa dagoelako eta itzalari, hau da ingurumena kaltetu, osasuna galduaraziko ligukeen erraustegiari ez esan nahi diogulako, bizipoza den gainetik!.

zabalduz

Igor Gorriti, Hurbilago Elkartea “Elkarte solidarioen elkargune izango da”

Euskal Herriko elkarte solidario ugariren elkargune bihurtuko da Usurbil datorren igandean; elkartasunaren bidetik, ezaugarri bateko edo besteko haur eta familiekin egiten duten lan zoragarria ezagutzeko aukera izango dugu; hori guztia, jai giroan gainera, usurbildarrontzat eta kanpotik datozen guztientzat ere egun polita izatea espero dugu. Hurbilagok eta auzolanean eta modu boluntarioan lanean arituko diren usurbildar eta kanpotik etorritako elkarteetako kide guztientzako



“Guretzat eta kanpotik datozenentzat egun polita izango da”.

luntxa eskainiko dute Hurbilagoko tabernariak. Elkartea eta herritar gisa ere, zerbaitek mugiaraztekotan bizitzeko pozak mugiarazi beharko gintuzke; besteei laguntzetik sortzen den poz horren beharra guztiok daukagu.

Olatz Matxain, GuraSOS: “Jaialdi honek integrazioa bilatzen du”

Edonorentzat irekia izango den aniztasun festa izango da. Behar bereziak dituzten haur eta familien elkarteak, osasuna, bizitza lotuko dituen. Jaialdi honek integrazioa bilatzen du, eta nola ez, GuraSOS ere laguntzaile moduan izango da gainerako taldeekin batera. Jendeak ondo pasa dezala, ekintza asko egongo dira eta denontzako lekua egongo da.



“Denontzat lekua izango da igandean”.

Beñat Arruti eta Zuriñe Lasarte, Ziortza Gazte Elkartea

Bizipozaren Jaiko baloreetan bete betean sartzen da Ziortza. Halako egitasmo baten alde egiteko Ziortzatik beti gaude laguntzeko prest. Ziortzak bere ekarpena egin nahi izan du. Begiraleak behar zituzten tailer eta puzgarrietan dinamizatzeko eta elkarteak kideak bertan izango gara. Gure ikuspuntutik boluntariotzak garrantzia handia du eta ez da galtzen utzi



“Gure ikuspuntutik boluntariotzak garrantzia handia du”.

behar. Denok egiten dugu festa, herria eta bizipoza. Animatu dadila jendea, egun polita izango da.

Sukaldaritzako ikasle taldea, Oinarrizko Lanbide Heziketa: “Bat gatoz filosofiarekin”

Bat gatoz Bizipoza Elkartearen filosofia-rekin. Bizipozak asko lagundu digulako, guk ere parte hartzen dugu. Denok parte hartu behar dugu. Pertsonetan oinarrituriko proiektu erreal bat da. Bakoitzak ahal duen neurrian lan egiten du baina denok gara baliagarriak. Bizipozaren Jaian 600 laguntzako herri bazkaria prestatuko dugu. Lan handia da, baina esperientzia oso polita izaten ari da, motibagarria. Haragizko 5 paella egingo ditugu, eta beste bat



“Bizipozaren Jaian 600 laguntzako herri bazkaria prestatuko dugu”.

barazkiena. Herrian antolatu izan diren beste hainbat ekimenetan (Kilometroak, AEK-ko bazkaria, Ikastola Eguna, erakusketetako luntzak...) parte hartu izan dugu. Udalak eskatzen digunean, gu beti laguntzeko prest.

Idoia Arruabarrena, Zumarte Musika Eskola: “Denontzat aberasgarria izango da”

Euskal Herriko elkarte solidario ezberdinen topagunea izango da Usurbil igandean. Denontzako aberasgarria izango da. Musika hizkuntza internacionala da, denean du tokia. Guk ere gure ekarpena egingo dugu. 3 emanaldi eskainiko ditugu; 10:00etako ongi etorrian, 12:15eko agurrean eta 13:30ean Aitzaga paretik abiatuko den erraldoi eta buruhandien kalejiran.



Zumarteko kideek hiru emanaldi eskainiko dituzte igandean.

Angel Trullen, Txirinbolo denda Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa

Jende asko etortzea espero dugu. Aukera polita izango da behar bereziak dituzten haur eta familien elkarteak ezagutu eta laguntzeko. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak 13:30an kalejira bat egingo du. Txirinbolo dendak paleontologia tailerra antolatu du, Mikel Laboa plazan egingo diren gainerako ekimenekin batera. Ahal baduzue etorri zaitezte. Egun zoragarria



“Jende asko etortzea espero dugu”.

pasako dugu. Zer nolako jaialdia den jakinda, denok gure partetik zerbait jarri eta lagundu dezagun.

Bizipozez beteriko eguna

Irailak 25, igandea

Frontoian eta Dema plazan:

- 10:00 Elkarleen topaketa.
- 11:00 Piko-piko jolasa: Elkarleen elkarrekin jolastuz.
- 12:15 Agurra elkarte, babesle edota laguntzaileei.
- 12:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" ikuskizuna.
- 13:30 Bazkari herrikoia As-katasuna plazan.
- 15:30 "Inklusioaz formatu txikian" antzerkia, Sutegin (Zeinu bidezko itzulpena izango du), 12 urtetik gorakoen-tzat.
- 15:30 Jalguneko lagunak frontoian.
- 16:30 Ane eta Piratak Bizipozako elkarlekin parrandan.
- 17:30 Txokolatada.
- 18:00 Jaiaren amaiera.

Egunean zehar:

Musikariak, buruhandi eta erraldoiak, elkarleen taillerak... izango dira frontoian.



Igandean eguerdiko 12:30ean Pirritx, Porrotx eta Marimotots frontoian izango dira eta "Amalur" ikuskizuna eskainiko dute. Argazkia: Txintxarri.

Mikel Laboa plazan (10:00-17:00):

- Irrien Lagunen puzgarriak, tailerrak (Real Sociedad Fundazioa eta Usurbilgo eragileen eskutik).

Sarrerak:

- Norbanakoen sarrera: 5 euro.
- Familia sarrera: 10 euro.
- Irrien Lagunen Klubeko familek doan.
- Bazkaritarako txartelak sa-

rreran salgai, egunean bertan; 5 euro.

- Antolatzailea: Bizipoza Auzolan, Irrien Lagunen Gizarte-gintza.

■ Babesleak: Irrien Lagunen Kluba, Usurbilgo Udala, Laboral Kutxa, Elkar, Katxiporreta, Factory Logistika, Txaxilipurdi, Real Sociedad Fundazioa, Berria, Eroski, Labe-Goxo, Barretxe eta NOAUA! K.E.

- Laguntzaileak: GuraSOS, Gaztelekua, Txirinbolo denda,

Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea, Usurbilgo Kantu Taldea, Zumarte Musika Eskola, Hurbilago Elkartea, Nafartarrak Elkartea, Ziortza Gazte Elkartea, Atea Teatro, Usurbilgo Gazte Asanblada, Jalguneko lagunak.

Laguntzaile beharrean

Jaialdi egunez, ordu batzuetarako, lan zehatzak egiteko laguntza beharko da; hondakinen bilketa puntuetarako, txartelak saltzeko, muntaketa eta desmuntaketarako, puzgarrietan begirale lanak egiteko... Animatzen zaretenok, eman izena elkartea@noaua.eus helbidean, ostiral hau, irailaren 23a baino lehen. Jaialdira datozenei bestalde, garraio publikoa erabiltzeko deia egiten zaie eta ingurumena zaintzeko ardura guztiona dela gogorarazi.

Bizipoza elkartea osatzen duten taldeak

- ADEMGI. Gipuzkoako esklerosi anizkoitza elkartea.
- AFESTA. Euskadiko Tourette sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familien elkartea.
- AGIPASE. Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.
- AMPGYL. Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkartea.
- Arnasa. Gipuzkoako fibrosi kistikoa elkartea.
- ASPANIF. Erbi ezpaindun edo ahoabai hautsiekin jaiotako umeen guraso elkartea.
- ASPANOI. Haur minbiziduen gurasoen elkartea.
- Aurrera Atera. Animalien laguntzazko terapien bidez la-

guntza fisiko eta emozionalak lantzen dituzte.

- Banaiz bagara. Jatorri ezberdinetako pertsonen elkarrekin euskaraz bizitzeko egitasmoak bultzatzen dituzte.

- Beroa. Gipuzkoako harrera familien elkartea.

- Bihotzez. Kardiopatiadun haurren familien elkartea.

- Bocalan Biak Bat. Animaliek lagundutako jarduerak sustatu eta zabaltzen dituzte.

- Chernobilaren Lagunak.

- Chrysallis Euskal Herria. Adingabe transexualen familien elkartea.

- DRAVET. Dravet sindromea dutenen fundazioa.

- Etiopia Utopia.

- FSDPV. Euskadin down sindromea duten familien elkartea.

- Gehitu. Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkartea.

- Gizakien Lurra. Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontutan hartu gabe.

- Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa.

- Goierriko Sahararen Aldeko Lagunak.

- Gure Nahia. Gipuzkoako gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko elkartea.

- Gure Señeak. Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien elkartea.

- Hiru Hamabi. Garuneko kaltea jasan duten adin txikien familien elkartea.

- Juneren Hegoak. Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkartea.

- Kale Dor Kayiko. Ijito kultur elkartea.

- Pausoka Elkartea. Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.

- Seaskako Integrazio Batzordea. Ahalmen urriko haurren eskolatzeko sustatzen du ikastolatan.

- Ume Alaia. Adopzio familien elkartea.

- Ulertuz. Entzumen urritasuna duten gazte eta familei laguntzeko elkartea.



URKULLU » LEHENDAKARI

Zurekin eta nahi duten herritar guztiekin batera
Euskadi eraikitzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu



ERAIKI EUSKADI

ZUREA BOZKATU



Joseba
Olatz
Kerman
Garbiñe
Iñaki
María
Aitor
Carmen
Josu
Montse
Xantxi
Josune

Arantxa
Garikoitz
Irene
Felix
Leire
Luke
Eva
Ion
Esti
Jon

Bozka emaileen txanda da orain



Igandean goizeko 9:00etan zabalduko da bozka emateko epea. 20:00ak arte egongo da bozka emateko aukera.

Azken txanpan sartu da hauteskunde kanpaina. Eusko Legebiltzar-erako hautagaiak burubelarri dabilta, azken ahaleaginean. Igandean izango dugu herri borondatearen berri.

Aurreko astean plazaratu genuen gehigarri berezian, lehen-dakaritzara aurkeztu diren zerrenda guztiak batu genituen. Honakoan, bost hautagaitza nagusien proposamenak aurkituko dituzue.

Eta igandean, lehen emaitzak aditzera ematen hastearekin batera, Usurbilgo zein EAEko datuen berri emango dugu. Gure web gunean, www.noaueus helbidean, eta baita gure sare sozialetan ere.

Usurbilgo EAJ-PNVren salaketa

Hauteskunde kanpainen egin den propagandaren inguruan, Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak salaketa bikoitza helarazi digu gutun bidez. Hauteskundeetako propagandarako tabloietan ipini duten propaganda ez dela errespetatua izan, eta bestetik, EH Bilduk horrelako propaganda egiteko egoki ez diren beste tokiez jabetu izana ohartarazi nahi du.

“Badira batzuk, beste guztiok baino gehiago direnak eta “Denon Herria” lemapean, herriaren jabe direla uste dutenak. Azken hauek, ez dute nahikoa leku, udalak eskainitako tabloietan bere propaganda jartzeko eta mezu sakona luzatzeko herriko beste zenbait hiri-altzarietan eta hormetan ere ipintzen dituzte beraien kartelak; udalak ezer ez duelarik egiten gauza hauen



Hauteskunde propagandarako ez diren gunez jabetzea eta euren propaganda ez errespetatzea. Horren kexu dira alderdi jeltzaleko kideak.

guztien aurrean. Dagoeneko garbiketa egina behar zuen”, dio EAJ-PNVren prentsa-oharrak.

“Besteon lana zapuzten”

Era berean, “behar den lekuan eta bereziki horretarako jarritako dauden tabloietan besteok jartzen ditugun kartelak ere ez dituzte errespetatzen, hor dabilta besteon lana zapuzten”.

EAJ-PNVren esanetan, “hone-lako jarrerak iraganera garatuz eta gogorarazten dugu bakea, bizikidetzeta eta errespetua oinarritzeko baloreak direla. Usurbilgo EAJ-PNVk, jokabide hau onartezina dela salatu nahi du. Bakea eta elkarbizitza sustatu nahi duen herri batek errespetutik garatu behar du!”.

Nagusi diren bost hautagaiengana jo dugu

Gehigarri hau prestatzeko orduan, beste hedabide berbera baliatu dugu: bost hautagai nagusiengana jo dugu, hauteskunde programa eske.

Alderdi eta proposamen gehiago egon badiren arren, hauen proposamenak dira batu ditugunak: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, PP eta Podemos. Gehigarri berezi honetan, bost zerrendabururen ideia nagusiak aurkituko dituzue, hurrenez hurren.

Bost hautagai, bost argazki

Bost alderdi zein koalizioetara jo genuenean, bi ziren gure eskaerak: hautagai nagusiaren argazkia, eta hauteskunde programaren kopia.

Arnaldo Otegi hautagai gisa inhabilitatua izan den arren, EH Bilduk Otegiren aldeko apustua mantendu du eta berea izan da igorri diguten irudia.

Hauteskunde programak, euskaraz bi bakarrik

Hauteskunde programekin gauza bitxia gertatu da. Bost artxiboetatik bi bakarrik zeuden euskaraz. EAJ-PNV eta EHBildurenak. Gainontzekoek, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Podemos-en hauteskunde programak gaztelaraz igorri dituzte. Gaztelaraz baino ez. Bitxia, gaur egun, itzulpen zerbitzuak (publikoak eta pribatuak) edonoren eskura daudenean.

EAJ-PNVren hauteskunde-programa

2008garren urtean kokatuko gara. Momentu hartan “Think Gaur Euskadi 2020” estrategia jarri genuen martxan. Etorkizuneko Euskadi irudikatu nahi genuen eta oinarriak ezarri gure helburuak betetzeko. Duela hamabi urte, 2020garren urtea oso urruti ikusten genuen baina, “tempus fugit”, eta aurrez aurre daukagu hamarkadaren bukaera. Gaur onartu behar dugu, estrategia hark asko lagundu digula, oinarri sendoak eskaini dizkigu aurrera egiteko. 2008garren urtean egindako lanak fruitua eman du eta Programa honetan ere nabaria da.

Gure Programak 2020ari begiratzen dio eta Europa hartzen du erreferentziazat.

Programa laburtuz:

- 1.830 eginkizun jasotzen ditu.
- 538 ekimen.
- 178 konpromiso.
- 31 lan arlo.
- 15 erronka.
- 6 oinarri: Pertsona; Enplegua; Modernizazioa eta irekiera; Zintzotasuna eta Gardentasuna; Bizikidetzatza eta Giza Eskubideak; Autogobernu gehiago Europara begira.
- 3 ardatz nagusi; eta lehentasun bat: enplegu gehiago eta hobe.

Euskadik helburu bat lortu dezake: langabezia %10etik jaistea.

Hori da gure lehentasuna eta konfiantza osoa daukagu Programa honekin eta elkarlanaren bidez helburu hori lortzeko gai izango garela.

Emandako hitza bete dugu.

Duela lau urte programa zehatz batekin aurkeztu ginen euskal gizartearen aurrean: “Euskadi Aurrera”. Urte zailak izan arren, emandako hitza bete dugu, Programa bete dugu.



Iñigo Urkullu, EAJ-PNV alderdiak lehendakartzarako aurkeztu duen hautagaia.

EAJ-PNV

“Programak hiru ideia nagusi batzen ditu: enplegu gehiago eta hobe, giza-garapen gehiago eta autogobernu gehiago”

Lau urte hauetako gakoak honako hauek izan dira:

- Ardura osoz jokatu eta ku-deaketa zorrotza erabili;
- Gizarte konpromisoa bermatu dugu, inor atzean utzi gabe;
- Atzeraldia atzean utzi eta hazkunde ekonomikora itzuli gara, enplegu berria sortzen ari da;
- Euskadin elkarriketa eta akordioen kultura sustatu dugu.

Emandako hitza bete dugu eta orain Euskadi eraikitzen jarraitu behar dugu.

Hauek dira gure “Eraiki Euskadi” Programaren indar guneak: -Hazkunde jasangarria, enplegu

gehiago eta hobe sustatzeko:

- Giza garapena, gizarte orekatuagoa bermatzeko; eta
- Autogobernu gehiago eta indartsuagoa irabaztea.

Kanpaina hasten da Auzitegi Konstituzionalaren erabaki batekin.

Ez ginen inoiz egoera honetara iritsi behar. Orain, Alderdi politiko guztiak, proiektuak, programak eta proposamenak aurkezteko aukera dugu. Denok dugu aukera hori eta gu saiatuko gara “ideiak ardatz duen kanpaina” bat sustatzen eta egiten.

Hauexek dira proposatutako erronkak:

- Langabezia Euskadin %10etik jaistea.
- 20.000 gaztek beren lehen lan esperientzia praktikoa izatea.
- Berrikuntza arloko 100 proiektu estrategiko garatzea.
- Industria garapena BPG-aren %25era iristea.
- Eskola uztea %7tik behera egotea.
- Pobrezia tasa %20tik jaistea.

-Herriar bakoitzeko BPG-a %125ean kokatzea.

-Familia-laguntzak %50 igo-tzea.

-Bizi-iraupe osasuntsua urte bat areagotzea.

-Berotegi efektua sorrarazten duten gasak %20 murriztea.

-Genero berdintasunean Europako 4 herrialde garatuen artean egotea.

-25 urtetik beherakoen %75 elebidunak izatea.

-Gardentasun indizeetan aitzindariak izaten jarraitzea.

-ETAren behin betiko armagabetzea eta desegitea.

-Hobeto bizitzeko Estatutu Politiko berri bat onartzea.

Aurkeztu duguna Euskadiren etorkizunerako proiektu bat da.

Azkeneko lau urte hauetan hitza bete dugu eta horrek ematen digu ilusioa proiektu berria defendatzeko.

Euskadirentzako herri-proiektu bat, sendoa eta zehatza.

Ardura osoz beteko dugu emandako hitza.

EH Bilduren hauteskunde-programa

Gobernu Plan honetako hitz gakoak laburbildu beharko bagenitu, honakoak lirakeke: jendea, ongizatea, etorkizuna, justizia eta bakea.

Hemen eta orain, egungo arazoei eta beharrei erantzun-go dien programa bat aurkeztu den dizuegu. Hemen eta orain garatzeko proposamen hauek, egingarriak, errealistak eta euskal jendartearen gehiengo zabalak partekatzekoak dira. Hurrengo legegintzaldia akordio zabalena izango da eta oinarri berriak jarriko dira jendarte eta herri ikuspuntutik. Oinarri horiek, hurrengo 20 urteak baldintzatuko dituzte.

Hori kontutan hartuta, gizar-tea egituratzen duten oinarriko neurriak definitu nahi izan ditugu. Europar erronka sozial-letan puntakoa izango den herria bideragarria da gure ustez eta horretarako osagai ezberdinak jarri behar ditugu funtzio-namenduan: jakintza, eskarmentua, giza baliabideak eta borondatea. Ez dira gutxi izan herri honek bidean sostengatu dituen prozesuak eta sinetsita gaude, datozen urteak erabakiorrak izango direla burujabetzaren bidetik metatu dugun potentziala askatu dadin.

Zentzu horretan, orain duguna baino herri justuagoa behar dugula uste dugu, pertsonak duintasunez bizi daitezzen. Herri aurreratua izan nahi dugu, berrikuntza soziala ikur, kalitatezko zerbitzuak bermatuko dizkionak komunitate osoari. Herri kultura eta solidarioa, gainontzeko pertsona eta herrialdeekin berdintasunezko harremanak bultzatuko dituen. Eta justiziadun herria izan nahi dugu, emakume



Arnaldo Otegi inhabilitatu egin duten arren, EH Bilduk lehendakartzarako hautagai gisa mantentzea erabaki du.

EH BILDU

“Hitz gakoak laburbildu beharko bagenitu, honakoak lirakeke: jendea, ongizatea, etorkizuna, justizia eta bakea”

eta gizonek askatasunean eta aukera berdintasunean bizi daitezzen.

Handia da aurretik dugun erronka: hemen eta orain, denon herria denon artean egitea. Horregatik, eta giza dimentsioan oinarritutako herri proiektua bideratu nahi dugulako, hauteskunde hauetan ondoren bildu dugun proposamena eskaintzera gatoz. Gobernuaren erronka nagusiak:

Erreskate soziala

- 35 lanordu.
- 1.200 euro oinarritzko soldata.

- 40.000 lanpostu publiko berri.
- 800 milioi euroko funtsa gure industria biziberritzeko.
- Oinarritzko Errenta haur eta nerabeentzat.
- 1.080 eurotako oinarritzko pentsioak.
- Etxegabetzeen kontrako Legea.

Burujabetza

- Herri Akordioa herritar subiranotzaren bide-orria garatzeko.
- Herritar kontsulta abilitantea Estatus Politikoko Berrirako.
- Herritarren erabakia errespetatu eta garatu.

Bakea

- Giza eskubide urraketak jasari dituzten biktima ororen aitortza, justizia eta erreparazioarako eskubidea bermatzeko Plan Estrategikoa.
- Espetxe-eskumen guztien jabe egin.

Gobernantza

- Lehendakaria eta goi karguen

soldatak gutxienez %25 murriztu.

- Gobernuako karguak kargu-gabetzeko herri galdeketa ahalbidertzeko Legea.
- Gobernuaren kontrol sozialerako Osoko Bilkurak.

Etorkizuna

- Abortatzeko Euskal Lege propioa.
- LOMCE bertan behera utzi.
- Euskararen Lege berria.
- Atzerriratu behar izan duten gazteak itzultzeko Plana.

Denon herria

Margotzen hasi garen etorkizun horretara heltzeko behar ditugun eztabaida guztiei eutsi nahi diegu herri gisa. Etor-kizuneko Euskal Herriaren gaineko gure ikuspegia mahai gainean jarri nahi dugu. Helburu handiak ditugu aurrean, guztiok elkarrekin heltzeko erronkak, denon herri amestutako horretara bideratuko gaituztenak.

PSE-EEren hauteskunde-programa

2007tik hona jasan ditugun krisi ezberdinen ondorio gogorrenak gainditu gabe, 2016ko hauteskundeetara iritsi gara. Susperraldiaren printzak ez dira gizartearen esparru guztietara iristen, eta ez dira krisiak eta austeritate politika okerrak eragindako urratuak konpontzeko nahikoa. Itxaropen eta aukera falta dira jendea gehien larritzen dutenak. Enpleguan, soldatetan eta zerbitzuetan debaluazio handia eman da, pobrezia berriz agertu da gure artean.

Alderdi sozialistan sozialdemokraziaren aldeko apustua rekin jarraitzen dugu, hori da gizarte justua eta ganorazkoa antolatzeko era onena, non hiritarren oinarritzko eskubideak ez duten familiaren edo jaioterriaren menpeko izan behar.

Era guztietako desberdintasunei aurre egitea da gure us-tez erronkarik handiena, eta desberdintasun horiek gaintitzea gure lehentasunen artean da.

Ez gaude ondo, Euskadi ez da oasi bat edo irla bat. Modu batean edo bestean, aipatu ditugun arazo horiek gudan ere eragiten ari dira. Datuek ez dute hutsik egiten. 150.000 pertsona ditugu langabezian izena emanda. Cáritasen azken txostenaren arabera, pobrezia-aren alde gogorrenak 113.000 pertsonen eragiten die. Herritarren %16a bazterketa sozialaren muga da (360.000 pertsona). Milaka gazte, asko eta asko formazio bikainarekin, euren bizitza-egitasmoa burutzeko ezinean daude. Gazte Kontseiluaren esanetan, krisia hasi zenetik 10.000 gazte Euskadi utzi behar izan dute.

Lehen aldiz, 200.000 langile



Idoia Mendia, PSE-EEk alderdiak lehendakaritzarako aurkeztu duen hautagaia.

PSE-EE

“Ekonomia berri bat sustatu behar da, gure indarguneak ahaztu gabe. Industria aurreratuaren, zientziaren eta berriztapenaren aldeko apustua eginez”

baino gutxiago ditugu industria sektorean.

Ez gaude ondo. Gobernu abertzaleak ez du behar adinako energiarekin erantzun, pairatzen ditugun arazoan aurrean ez da irmo aritu, nahiz eta oposizioetik PSE-EEren babesa jaso. Aldiz, baldintza okerragoetan ginenean, PNVk Patxi Lopezen gobernu sozialista babesteari uko egiten zion.

Ekimen eta ideia falta izan da Urkulluk gidatu duen gobernuaren ezaugarria. Paralisia gaintitu behar da. Eta gure sistema demokratikoa biziberritu

eta indartu behar dugu.

Krisiak eta konponbide hutsalek eragin duten haustura soziala berrosatu behar dira.

Errentaren inguruko ituna. Sakrifizio, ardura eta onuraren banaketa ekitatibo bat. Enpresa arloan nahiz arlo sozialean. Banaketa hori fiskalitate sistema justu eta progresibo batez lagundua egon behar du. Iru-zurrari eta ezkutuko ekonomiarri aurre eginez.

Gure sistema sozialaren oinarriak mantentzeko konpromisoa. Urte hauetan jasan dituen murrizketak konponduz.

Ekonomia berri bat sustatu, gure indarguneak ahaztu gabe. Baina industria aurreratuaren, zientziaren eta berriztapenaren aldeko apustu irmoa eginez.

Autogobernua hobetu, PSOEek proposaturiko konstituzio erreforma baliatuz.

Autogobernua sinisten dugu, elkarbizitza antolatze-ko sistema egokiena da. Ez da helburu bat, herritarren zer-

bitzura dagoen tresna baizik. Instituzioetatik, unean uneko beharrei atentziorik onena eskaintzeko. Berdintasunean eta ongizatean aurrera egiteko.

Beste instituzioekin elkarlanean arituko den autogobernu moderno baten aldeko apustua da gurea. Eta aurreko legealdian, proposamen landu bat aurkeztu genuen, 1979ko Gernikako Estatutua gaur egungo beharretara egokitzeko.

Baina Estatutuaren edo Konstituzioaren eguneratzeak ematen diren bitartean, sozialistok azaldu dugu zein puntu diren eguneratu beharko liratekeenak: kanpora begira, Administrazio zentralarekiko harremanetan; eta barrura begira, 1979an jaso gabeko eskubideen aitortza –etxebizitza, DBE(RGI) edota dependentzia arlokoak, adibidez–.

Herritar guztien berdintasuna erreala eta benetazkoa izan dadin, Lurralde Historikoen Legea berritzeko proposamena egin dugu.

PPren hauteskunde-programa

Autonomia Estatutuak eskaintzen dizkigun aukerak ez dira ondo kudeatuak izan. Datu batek argi adierazten du hau guztia: Espainiako ekonomiaren %7,53 ordezkatzetik, %6,07 ordezkatzera igaro da Euskadi. Datu gehiago ere badira beheranzko joera hau baieztatzen datozenak, eta beste arrazoi batzuk tarteko egon arren, bada azalpen bat: prozesu demografikoak euskal gizartearen garapen ekonomikoa mugatzen du, eta era berean gastu sozialaren igoera dakar. Eredu hau defizitariora da era nabarmenean eta Euskadiko pentsioen defizita aztertzen bada argi eta garbi ikusten da.

Agintean den nazionalistotik autokonplazentziaren diskurtsoa entzuten dugu behin eta berriz, gauzak ez dabilta zuzen, beste aldagai batzuk kontrakoa diotelako. Batzuentzat, osasunean gehien gastatzen duen Autonomia Erkidegoa izatea pozteko modukoa izango da. Baina ELGE (OCDE) erakundearen txosten batek dio garestiena izan arren, Espainiako erkidegoen zerrendan seigarren postuan dela euskaldunon osasun maila. Ondorioa argia da: zer edozer gaizki dabil.

Pozik egon daiteke bat esanez Espainiako Erkidegoen artean Euskadi dela Hezkuntzan gehien gastatzen duena. PISA ikerketa europarrak dio hezkuntza kalitatean zazpigarren postuan gaudela Espainian, beraz, argi geratzen da aurrekontua ez dela den-dena hezkuntza arloan, eta gauza asko hobeto egin daitezkeela.

Euskadiko Alderdi Popularra aspalditik esaten ari da: Autonomia ezarri zenetik euskal administrazioari ezarri zaion karga ideologikoa kendu behar zaio kudeaketari. Gernikako



Alfonso Alonso, PP alderdiak lehendakaritzarako aurkeztu duen hautagaia.

PP

“Autogobernuaren bidez, Euskadik tresna egokiak ditu emaitza hobek lortzeko, eta Espainian orain arte izan duen posizioa berreskuratzeko”

Estatutuak eskaintzen dituen aukeren atzean emaitza txarrak daude eta, zalantzarik gabe, euskal nazioaren eraikuntzaren obsesioa dago horren atzean. PNVk eta gobernuan babestu duten alderdiek lehentasuna eman diote helburu ideologiko honi. Obsesio horrek atzeratu egin ditu gure Autonomia Erkidegoak eskaintzen dituen aukerak, obsesio horrek gaur egungo egoera delikatu honetara eramain gaitu.

Azterketa baikorrena Euskadiren posizio arriskutsuaren jabe da. Aldaketa bat eman behar da, euskal nazionalismoak administrazio arloan sustatu

duen helburu identitarioen gaitetik, lehiakortasunari lehentasuna eman behar zaio.

Zerbitzu publikoen kudeaketa on baten alde, aldaketa bat eman behar bada administrazio publikoan, arrazoi gehiago horren alde egiteko. Gizarte moderno batek hiritarraren askatasunean oinarritu behar du. Komunikatua dagoen mundu bati zabalik dagoen gizartea behar dugu. Kultura, ekonomia edo gizarte kutsuko segmentazioaren aurrean, etengabeko eraldakuntza sustatu behar da, garapenean oinarrituz eta desberdintasunak gaindituz.

Hamarkada askotan luzatu den gobernu abertzale baten ondoren, ez da harritzekoa euskal gazteak izatea beranduenik emantzipatzen direnak. Euskadi dagoeneko ez da erakargarria beste lurralde batzuetako profesionalentzat.

Immigrazioaren zati handi bat gizarte arloko laguntzengatik dator Euskadira. Enplegu alde-

tik eduki ditzaketen aukeretatik haratago, oinarritzko errenta batzuk ziurtatzeko toki gisa ikusten dute Euskadi. Deia efektuarien froga nagusia da etorkinek Espainian baino langabezia tasa altuagoak dituztela hemen.

Hiritar nazionalista eredua diseinatzearen ordez, hiritarren arazoak konponduko dituen administrazio bat osatzea posible da. Azken boladan galdu duen lidergoa berreskuratzeko, Euskadik ahalmen profesional eta ekonomikoa du, baita gizatiar ahalmena ere. Autogobernuaren bidez, tresna egokiak ditu emaitza hobek lortzeko, eta Espainian orain arte izan duen posizioa berreskuratzeko.

Alderdi Popularrean ETAre indarkeria pairatu zutenekin gaude, euren bizitza arriskatu zutenekin, eta gure askatasuna mugatu nahi zuten horiei aurre egin zieten herritarrekin. Talde terroristarekin akzioz edo omisioz partehartu zutenen presioei aurre egingo dion indar politikoa da gurea.

Podemosen hauteskunde-programa

Sare sozio-ekonomiko eus-kaldunak beste lurralde batzuetan baino hobeto eutsi badio ere, euskal jendar-teak antzeman du aspaldiko krisi handienaren aurrean gaudela. Ezberdintasunak, lan munduko prekarietatea, aukera falta... Arazo sozialak areagotu egin dira. Baina tamalez, krisi aurretik ezagutzen genituen arazoak ziren horiek.

Euskadik paradisu baten antza duela entzun dugu berriki, baina askok uste dugu gure arazoen konponbidea ez dela okerrago dauden lurralde batzuekin alderatuz etorriko, kudeaketa okerragoa izan dutelako edo gehiago sufritu dutelako, baizik eta Urkulluren gobernuaren autokonplazentzia eta aurreikuspen zein sentiberatsun sozialaren falta gainditzetik baizik.

